BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1065

EBAZPENA, 2013ko urtarrilaren 28koa, Lurralde Plangintzaren eta Uren sailburuordearena, zeinaren bitartez, deialdi publikoaren bidetik, honako prozedura hastea erabakitzen baita: Armintzako (Bizkaia) portuan amarralekuak erabiltzeko baimenak emateko dena.

Armintzako portuak baditu profesionalentzat ez diren aisia-ontzientzako amarratze-instalazioak; eta horiek okupatzeko, amarralekuak erabiltzeko baimena edo titulu administratibo bat izan behar da aldez aurretik.

Euskal Autonomia Erkidegoaren titularitatepeko postuetan baimen horiek emateko prozedura ezarrita dago agindu honetan: Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2004ko apirilaren 20ko Agindua, zeinarekin honako prozedura hau arautzen baita: Euskal Autonomia Erkidegoaren titularitatepeko portuetan eta portu-instalazioetan, profesionalentzat ez diren aisia-ontzien titularrek amarralekuak erabiltzeko aldi baterako baimenak emateko dena. Eta agindu horren 3. artikuluan zehazten denez, amarralekuak lortzeko eskabideak egiteko epe bat irekiko du Administrazioak, hain justu ere eskudun agintaritzaren ebazpen bidez egindako deialdiaren iragarki batekin, zeina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den.

Gorago esandakoarekin bat etorriaz; batetik, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren xedapen gehigarrietarik b) lehenengoan eta 16.1.o) artikuluan, sailburuordetza honi ematen zaizkion ahalmenak baliatuaz; eta, bestetik, Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2004ko apirilaren 20ko Aginduaren, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoaren portuetan eta portu-instalazioetan, profesionalentzat ez diren aisia-ontzien titularrek amarralekuak erabiltzeko aldi baterako baimenak emateko prozedura arautzeko Aginduaren azken xedapenaz baliatuaz, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 26.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriaz, beherago zehaztutakoa ebazten dut (azaroaren 24ko 607/2009 Dekretua honako honen arabera dago indarrean: Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardunarloak finkatzeko den Dekretuaren xedapen iragankorraren indarrez, hain justu ere).

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Deialdi publikoaren bitartez, honako prozedura honi hasiera ematea: Armintzako portuan amarralekuak erabiltzeko baimenak emateko dena, betiere ebazpen honen eranskinean jasotako oinarriekin bat etorriaz.

Bigarrena.– Ebazpen honetan ez da amaitzen administrazio-bidea, eta bere aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik harako hilabeteko apearen barruan; errekurtso hori ebazteak administrazio-bidea amaituko du; eta ebazpen horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hura eman duen organoaren aurrean, edo zuzenen aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako ordena jurisdikzionalaren aurrean.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunenetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 28a.

Lurralde Plangintzaren eta Uren sailburuordea,
ANTONIO AIZ SALAZAR.

ERANSKINA

OINARRIAK

Lehenengoa.– Deialdiaren xedea.

1.– Deialdi honen xedea hauxe da: Armintzako portuan amarralekuak erabiltzeko aldi baterako baimenak ematea.

2.– Profesionalentzat ez den aisia-ontzi baten titular den orok aurkez dezake eskabidea.

Bigarrena.– Eskainitako amarralekuak.

1.– Ehun eta hogeita bi (122) amarraleku eskaintzen dira, ondoren zehaztu bezala banaturik:

– 38 patalan-amarraleku dira, eta

– euretariko 11: luzera maximoa 6 metrokoa edo hortik beherakoa duten ontzientzat,

– 21: luzera maximoa 6 metrotik gorakoa eta 8 metrokoa edo horik beherakoa duten ontzientzat eta,

– 6: luzera maximoa 8 metrotik gorakoa eta 11 metrokoa edo horik beherakoa duten ontzientzat.

– 57 urteko buia-amarraleku dira, eta

– Euretarik 35: gehienik 6 metrorainoko luzera duten ontzientzat eta,

– 22: luzera maximoa 6 metrotik gorakoa eta 8 metrokoa edo horik beherakoa duten ontzientzat.

– 27 aldi baterako buia-amarraleku dira, eta

– euretarik 16: gehienik 6 metrorainoko luzera duten ontzientzat,

– 10: luzera maximoa 6 metrotik gorakoa eta 8 metrokoa edo horik beherakoa duten ontzientzat eta,

– 1: luzera maximoa 8 metrotik gorakoa eta 11 metrokoa edo horik beherakoa duten ontzientzat.

2.– Administrazioak badu eskumenik erabilgarri diren amarralekuen ezaugarriak eta kopurua aldatu, murriztu edo handitzeko, betiere antolaketa-planekin bat etorriaz.

Hirugarrena.– Eskabideak.

1.– Ebazpen honetako eranskinean jasotako modelo normalizatuan aurkeztu beharko da eskabidea, zeina doan emango baita honako leku hauetan: Bizkaiko Portuen Lurralde Zerbitzuan (Elkano 3, behealdea 48011 Bilbao), eta Portu eta Aireportuen Zuzendaritzan (Donostia 1, Lakua 1, 7. solairua, Vitoria-Gasteiz); betiere astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

2.– Halaber, Eusko Jaurlaritzaren orrialde elektronikoan, www.euskadi.net, ere jaso ahal izango da, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari dagokin atalean-Portuak eta aireportuak-kirol portuetan amarralekuak:«amarralekua izateko eskabidea».

3.– Eskabidearekin batera honako dokumentazioa aurkeztu beharko da: Garraio eta Herri Lanetako sailburuaren 2004ko apirilaren 20 Aginduko 4.2 artikuluan eskatutakoa.

4.– Ontzi batek eta berorren ekipo propultsatzaileak CE marka badute, ontzi horren titularrak, idazpen-orriaren ordez, inskripzio-ziurtagiria aurkeztu ahal izango du.

Laugarrena.– Eskabideak aurkezteko lekua.

Eskabideak zuzenean aurkeztu ahal izango dira honako leku hauetan: Bizkaiko Portuen Lurralde Zerbitzuaren bulegoetan (Elkano 3, behealdea, 48011 Bilbao), eta Portu eta Aireportuen Zuzendaritzan (Donostia 1, Lakua 1, 7. solairua, Vitoria-Gasteiz); betiere astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara; baina horrek ez du eragotziko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan xedatutakoa.

Bosgarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea: EHAAn ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta baliodun hamabost egun barru amaituko da.

Seigarrena.– Prozedura.

Baimenak emateko prozedura honako agindu honetan ezarritakoa izanen da: Agindua, 2004ko apirilaren 20koa, Garraio eta Herri Lanetako sailburuarena, zeinarekin arautu egiten baita honako prozedura: Euskal Autonomia Erkidegoaren titularitatepeko portuetan eta portu-instalazioetan, profesionalentzat ez diren aisia-ontzien titularrei amarralekuak erabiltzeko aldi baterako baimenak emateko prozedura, hain justu ere.

Zazpigarrena.– Amarralekuak erabiltzeko baimena.

1.– Amarralekua erabiltzeko baimenaren epea hiru urtekoa izanen da, hain justu ere deialdi honen ondorioz emandako baimenean zehazten den egunetik hara.

2.– Urte baten barruan, segidan hile baten baino luzaroago edo bi hile alternotan ez badu okupatzen plaza esleipendunak, horrek amarraleku-plaza galtze ekar liezaioke, salbu eta justifikatutako kausaren bat izan, zeina Portu eta Aireportuen Zuzendaritzak aztertu eta onartu beharko duen.

Zortzigarrena.– Datuak babestea.

1.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoa betetzearren, adierazten da ezen, eskatzaileek emandako datu pertsonalak «Portuetako jabari publikoan emakidak eta baimenak» izeneko fitxategian jaso direla. Fitxategi horren arduraduna Portu eta Aireportuen Zuzendaritza da. Bestalde, jakinarazten da ezen, aipatu datuen bilketak eta tratamenduak honako helburu dutela: amarralekuak erabiltzeko aldi baterako baimenak kudeatzea; delako informazioa aipatu zuzendaritzak jasoko du.

2.– Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubidea Portu eta Aireportuen Zuzendaritzan baliatu ahal izango da (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).